



# 'IBARRATIK, EUSKAL HERRIA EZAGUTUZ' ABIAN

Haitzetan Raju eta Bai Euskal Herriari ekimenak bizikleta irteera antolatu dute Araban, hilaren 24ean >4

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteartea  
2010-10-19**

VIII. URTEA 2.103. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Janari postuez gain, artisaauk ere elkartu ziren Zizurkilen. SARA GOMEZ

## OLATZA BASERRIKO POSTUA SARITU DUTE XIII. AZOKA BEREZIAN


**ZIZURKIL** Janari eta artisaau postuen artean, jende ugari ibili da; haurrentzat ekitaldi bereziak antolatu dituzte egun guztian zehar >5



### Promozio berria -Ibarra-

Sustatzaillea:  
**Epergain**  
Eraikuntzak eta  
Promozioak, S.L.  
Eraikitzen du:  
**Aburuza**  
Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • [www.aburuza.com](http://www.aburuza.com)



Denbora islatu behar izan dute lehiaketako parte hartzaileek. HITZA

## Argazkirik onena aukeratzeko epea hilaren 28an amaituko da

**BERASTEGI** Argazki Rallyko argazkiak sarean daude; botoak emateko garaia iritsi da orain >3

## 10 domina Olaberria eta Pagolaren artean

**KIROLAK** Espainiako Pistako Txirindulari Txapelketan ikaztegiak 5 urrezko lortu ditu >7

**MIKEL ERRAZKIN** ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

«75 urtetan isilik egon diren gizon eta emakume asko dago»

**TOLOSA** Gerra Zibilak Tolosan izan zuen eragina azaltzen duen liburua kaleratuko du Aranzadik >2

# Ahantzuran gera ez daitezzen

**Gizartea** » Gerra Zibilak Tolosan izan zuen eragina aztertu eta liburua kaleratu du Aranzadik; hitzaldiak eta omenaldia ere antolatu ditu.



Gasteizko artxiboan topaturiko argazkia. Frankistak Tolosara sartu ziren unean. ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

## INIGO TERRADILLOS

Tolosako Udalak, 750. urteurrenaren aitzakian, Gerra Zibilak Tolosan izan zuen eraginari buruzko lan bat egitea proposatu zion Aranzadi Zientzia Elkarteari 2006. urtean. Hamaika ikerketa eta elkarriketa egin eta lekukotza bildu eta gero amaierara iritsi da proiektua. Lan hori jendaurrean aurkeztea geratzen zaie orain, eta horretarako *Historia eta oroimena* izeneko liburua egin dute. Liburuaren aurkezpenarekin batera, hitzaldiak eta erakusketa antolatu dituzte, eta baita Gerra Zibilean fusilatuak izan ziren tolosarrei eskainitako omenaldia. Halaber, Udalak, Gerra Zibileko ekintzak arbuiauti eta biktimak omentzen dituen mozioa ere onartu du.

## Ikerlan zabala

Gerra Zibileko eta Lehen Frankismoko, hau da, 36tik 45era bitarteko, aktore sozial desberdinak ikeritu ditu Aranzadi elkarteak, 4.942 denera. Horietatik, %82 ziren tolosarrak eta gainerakoak, Tolosaren kultura lotura zutenak, bertan fusilatu zituztelako, hil zirelako edo kar-

tzelatu zituztelako, esaterako. Horien guztien testuingurua ikertu dute eta beste ehunka datu ezagutu dituzte, artxibo ugariaren esker. Horrela jakin dute, esaterako, Tolosan lau hobi komun daudela. Datu eta lekukotza horiek guztiak bildu dituzte otsailen kaleratuko duten liburuan.

## Udalaren gaitzespena

Tolosako Udalak bilkura deitu zuen pasa den ostegunean oroi-men historikoari buruzko mozioa eztabaidatu eta Aranzadik antolatutako ekitaldi sorta aurkezteko.

Udalbatzako alderdi guztiek onarturiko mozioaren arabera, «Udalak orain dela 74 urte gertatutako Estatu Kolpea gaitzesten du,

eta, eraberean, ideia politikoak lortzeko edo defendatzeko helburua duten bortxakeri oro gaitzesten du». Bestalde, Udalbatzak 1949ko abuztuaren 19an Francisco Franco Ohorezko Alkate izendatu zuen erabakia balio gabetu du, eta oroitzen historikoaren berreskurapena eskatzen du. Hala, publikoki aitortzen du «euren ideia demo-

kratikoak defendatzearen ondorioak jasan zituztenen balioa eta samina». Eta Frankismoaren biktima izan zirenen kalteordain moralerako eskubidea aldarrikatu eta herrien arteko berradiskidetzaren alde lan egiteko konpromisoa hartzen du. Azkenik, azaroaren 27an fusilatuen oroimenez egingo den ekitaldian parte hartuko duela erabaki du Tolosako Udalak.

Bestalde, Tolosako ezker abertzaleak mozioarekin bat egiten duela adierazi du, baina, «EAE-ANVren hautetsiak udal honek berak baztertu dituen» ezin dutela Udala agintari «zintzotasunean» sinetsi diote. «Nola antolatu liteke zintzotasunez horrelako ekitaldi bat EAEren hautetsiak kontuan izan gabe? Ez al dira aldarrikatzen duten 'oroimen historikoaren' aurka ari?» azaldu dute. Udala agintariak «alderdikerian kokaturik» daudela uste du ezker abertzaleak, «gure herriak behar duen jarreratik oso urrun».

## » EGITARUA

### Urriaren 22tik 30era

■ **Erakusketa.** Hildakoak hilobietatik ateraz, duintasunak berreskuratuz erakusketa Kultur Etxean.

### Urriak 28, osteguna

■ **19:30.** Hildakoak hilobietatik ateraz, Francisco Etxeberria Aranzadiko Antropologia Fisikoaren Zuzendariaren eskutik, udaletxeko batzar aretoan.

### Azaroak 25, osteguna

■ **19:30.** Emakumearen errepresioa Gerra Zibilean hitzaldia Lourdes Herrasti Aranzadi Zientzia Elkartearen antropologoaren eskutik, udaletxeko batzar aretoan.

### Azaroak 26, ostirala

■ **19:30.** Txaber Larreategi eta Josu Martinezen *Prohibido recordar* filmaren emanaldia, Leidor aretoan.

### Azaroak 27, larunbata

■ **11:00.** Herri omenaldia San Blas hilerrian.

### Urtarrilak 13, osteguna

■ **19:30.** Funtzionarioei errepresioa hitzaldia, Inaki Egaña historialaria eta Mikel Errazkin Aranzadi Zientzia Elkartearen antropologoaren eskutik, Tolosako udaletxeko batzar aretoan. (Euskaraz eta gaztelaniaz).

### Otsailak 3, osteguna

■ **19:30.** Emakumearen filiazio politikoa gerra aurretik hitzaldia Miren Llonaren eskutik, udaletxeko batzar aretoan.

### Otsailak 24, osteguna

■ **19:30.** *Historia eta oroimena* liburuaren aurkezpen ekitaldia, Mikel Errazkin, Juanxto Agirre eta Francisco Etxeberriarekin, batzar aretoan.

## «Orrialdea pasa aurretik, irakurri egin behar da»

**MIKEL ERRAZKIN** » Aranzadi Zientzia Elkartearen antropologoa

## I. TERRADILLOS

Juantxo Agirrerekin batera zuzendu du proiektua Mikel Errazkin Aranzadiko kideak. Guztien artean eraiki behar dugula memoria historikoa dio.

**Aurreikusitakoa baino gehiago luzatu da azkenean proiektua.**

2006an hasi ginenean, zerbait txi-

kia egitea zen asmoa, Tolosaren 750. urteurrenaren harira. Hasi-ratik gizon-emakumeei eman nahi izan diegu garrantzia, euren historia sozial txiki horiek berrosatu nahi genituen. Pixkanaka-pixkanaka ordura arte sartzetik ez zegoen artxiboetara sartzera lortzen hasi ginen, artxibo militarretara

edo presondegetako artxiboetara, esterako. Horrela, ezezagunak ziren dokumentuak lortzen gindozan heinean, gutxinaka proiektua handituz joan zen, eta horregatik joan gara luzatzen.

**Dokumentu garrantzitsuak aurkitu dituzte, beraz.**

Dena den, lortu ditugun dokumentu horiek baino, guretzat garrantzitsuagoa izan da lekukotasunak jasotzea. Izan ere, zenbaki eta inizialen atzetik pertsonak daude eta helburua pertsona horien historia eraikitzea izan da. Azken batean, memoria historikoa pieza txiki osaturiko mosaiko handiago bat da, eta guk garrantzia eman diegu pieza txiki horiek osatzen dituzten biktimei. Historia sozial hori eraikitzeko euren lekukotasuna ezinbestekoa izan da. Konturatu gara ia 75 urtetan isilik egon diren gizona eta emakume asko daudela asko sufritu dutenak eta horrek emozio handiko edukia du.



E. MAIZ

Horregatik, hau ez da izan beste ikerketa historiko eta antropologiko bat, baizik eta emozioek pisu handia izan duten lan bat.

**Zergatik da beharrezkoa horrelako ikerketak bultzatzea?**

Nazio Batuen Erakundeko agintari batek Espainiako Gerra Zibilearen eta Frankismoaren inguruan esaten zuen orrialdea pasa aurretik orrialdea irakurri egin behar dela. Hori da aldarrikatzen ari ga-

rena. Gerora etorriko da agian garaia memoria bera normalizatzea eta pixka bat eguneratzeko. Baina, kontua da, behin Gerra Zibila amaitu zenean, irabazi zutenek euren biktimak ohoretzeko eta eskubideak bermatzeko memoria politikagazatu zutela. Zuzenbide penalaren arabera, hiru dira biktimek dituzten eskubideak: egia ezagutzea, justizia egitea eta errepazio morala. Beraz, irabazi zutenek euren biktimekiko hiru puntu horiek gauzatu zituzten, baina galdu zuten ahantzuran geratu ziren. Eta okerrena ez da 40 urte iraun zuen diktaduran ahantzura gertatu zela, baizik eta trantsizioan ere jarraipena eman zitzaioala ahantzurari. Biktima horiek duten hutsune hori gauzatzeko garaia da, eta batez ere, bere garaian jazotako gure herriaren ezagutarazteko. Memoria historikoa guztien artean eraikitzen hasi beharko ginatekeela uste dute.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Laburrak

### Entsegua, Txintxarri eguneko kontzerturako

**ALEGIA** ● Hilaren 24an Txintxarri eguna ospatuko dute, eta izen bera duen abesbatzak bertako kide izan diren guztiei dei egiten die, egun horretako kontzertuan parte hartu eta azken bi abestiak beraiekin batera kantatzeko. Hori prestatzeko, hilaren 22an entsegua egingo dute 21:00etan, elizan.

### Kultur Asteko afarirako txartelak salgai daude

**AMEZKETA** ● Kultur Astearen baitan, azaroaren 6an Ugarten egingo den afarirako txartelak salgai daude. Hauek herriko tabernetan erosi daitezke, hilaren 29a bitartean. Honez gain, azaroaren 14an egingo den azokan izena emateko aukera ere zabalik dago. Hau udaltxean egin daiteke, edo festa batzordeko norbaiti esanda.

### Ipuin kontalariaren saioa izango da bihar 17:15ean

**LARRAUL** ● Bihar arratsaldean ipuin kontalari baten bisita jasoko dute Larraulgo liburutegian. 17:15ean izango da hurrei zuzendutako saioa.

## Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

#### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aizondo zerb.: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**RENFE:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzarano autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurrarendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474



Orain arte jendeak emandako bozken arabera, ondorengo hiruko dira kamara digitalarekin ateratako onenak. HITZA



# Bozka emateko garaia iritsi da

**Berastegi** » Argazki Rallyko parte-hartzaileek ateratako argazkiak ikusgai daude [www.berastegi.org](http://www.berastegi.org) webgunean.

#### ERREDAKZIOA

Argazki Rally herrikoian argazki onenak aukeratzen hasteko garaia da. Atzotik zabalik dago argazki kamara digitalarekin ateratako argazkien artean aukeratzeko epea.

Interesa dutenek hilaren 28a baino lehen eman beharko dute beraien botoa.

Internetez bozkatzeko, Fototeka atalean aurkitu ahal izango dira parte-hartzaileen argazki guztiak. Erretratu bakoitzak zerbaki bat du, eta webguneko eskuineko atalean sartuta, bozka eman daiteke, baita emaitzak ikusi ere. Hilaren 28an amaituko da honetarako aukera. Gainera, kontuan izan behar da, behin bakarrik bozkatu daitezkeela. Berastegiaren iritzia ez

ezik, Tolosako Richard argazki dendako argazkilariarena ere jasoko dute antolatzaileek. Izan ere, azken honek erabakiko du zein den irabazlea.

36 irudi daude denera eta horiek modu batera edo bestera, denbora islatu nahi dute. Batzuk, horretarako, erloju zahar bati atara diote argazkia, beste batzuek, uraren jarioari, herdoildutako aulkiki bati edo agure eta haurrei. Gai abstraktua izatean, aukera ugari eskaintzen zituen, eta gehienek ere, aprobe-

txatzen jakin dute. Jada, Berastegin finkatuta dagoen lehiaketa da Argazki Rallya, eta kalitate handiko lanak aurkezten dituzte parte-hartzaileek.

#### Digitalen ostean analogikoak

Argazki kamara digitalarekin ateratako argazkiak bozkatzeko garaia amaitzen denean, analogikoarekin ateratakoak aukeratzen hasteko garaia hasiko da. Izan ere, hauek ere [www.berastegi.org](http://www.berastegi.org) webgunean zintzilikatuko dituzte.

## Z zurea da hitza info

# Hirugarren aldiz gurpilak zulatu dizkiote auto bati

#### IBARTAR BAT

Larunbat gauean Ibarra Apata Erreka auzoan aparkatuta zegoen auto bati, norbaitek eraso egin zion, eta hiru gurpilak zulatu. Urtebeteren epean, hiru aldiz egin diote, gauza bera nire errainari.

SS 9197 A V matrikula duen Citroen Xhantia bat da erasotako autoa. Iaz, abenduan eraso zioten lehendabiziko aldiz. Orduan, MBG-ri ez ezik, bere senarrarenari ere gauza berdina egin zioten. Labanaz-edo, gurpilak zulatu. Lehendabiziko aldi hartan salaketa jarri genuen Ertzaintzan. Bi hilabete beranduago, otsailean, berriz, errainaren autoa gurpilak zulatu zituzten eta salaketa berri bat jarri genuen. Hiru kasuak, larunbat gauez eman dira eta denera hamaila gurpil izorratu dizkiete.

Ertzaintzaren esanetan, beraien aurkako sabotaje bat da, eta ez da kasualitatea beti beraiegi egitea.

Gertaera bera salatzeaz gain, nolabait hau konpontzeko eskatu nahi dut. Ez dakit nola, agian, zaintza handiagoa jarri inguruetan edo. Nire semea eta bere emaztea belduz dade, hirutan egin badiete, berriro ere gertatu daitezkeela uste baitute. Horregatik, publikoki salatu nahi dut, bi ibartarren kontra ematen ari den jazarpena.

Bestalde, Ertzaintzari eskatu nahi diot, gertatutako ongirikerteko, nor izan den jakin dadin eta, aurrera begira, gehiagotan eman ez dadin horrelakorik. Belduz bakaude, eta ezintasunez beteta.

**Bizirikoa**  
**Udal etxebizitza**  
**tosatuak**

Udalak etxebizitza berriak eskaintzen ditu. Interesak dituztenak, jarraitu behar dute.

Agintaria: **Bizirikoa**

Udalaren helbidea: **Udalaren**

Telefonoa: **943 670 700**

Webgunea: **www.berastegi.org**



Ibarran Apata Erreka auzoan aurkitzen zen erasotako autoa. E. EZEIZA

## Iragarki laburrak

#### GALDUTAKOAK

■ **Txakurra.** Urriaren 11n, Border Collie arrazako txakurra galdu zen Belabieta inguruan. Norbaitek ikusi badu deitu 644 58 91 24 telefono zenbakira.

#### LANA

■ **Garbitzailea.** Uzturre garbiketak enpresak lau langile kontratatu

nahi ditu. Interesatuak bidali argazkidun Curriculumak [uzturregarbiketak@gmail.com](mailto:uzturregarbiketak@gmail.com) helbidera edo deitu 678 99 25 49 telefonoz zenbakira.

#### ALOKAIRUA

■ **Baserria edo borda.** Baserri edo borda bat alokatuko genuke. Interesatuak deitu 634 45 91 0era.



# Ikasturteko lehen irteeran bizikletaz ibili dira Arabako urtegiaren inguruan

**Ibarra** » Haitzetan Raju eta Bai Euskal Herriari ekimenak egun pasa antolatu dute igandean, hilak 24ean.

## ASIER IMAZ

Udazkenak urteko irudirik ederrenak uzten ditu Euskal Herriko mendietan. Horren jakitun, urtaroi ihes egiten utzi gabe, ibartarrek mendi irteeren egutegia aurkeztu dute.

Ohi bezala, Haitzetan Raju eta Bai Euskal Herriari taldeak aritu dira mendi irteera hauen inguruan sua pizten. Berotasun honek, Ibarrrako beste hainbat talde eta norbanako erakarri ditu. Hori ez da izan ordea, azken hiru urte hauetako lanarekin lotu dute gauza bakarra; bi eragile hauen gogoa eta sua Lizarrara eta Algortara ere iritsi baita.

## Lehen irteera: igande honetan

Ikasturte berriko lehen irteera urriaren 24ean egingo dute: Arabako Urribarri Ganboa urtegiara bizikletaz joango dira. «Ibilbidea erabat laua da oraingo honetan, Bardeetan ez bezala. Edonork egiteko modukoa da».

Igandean bertan irtengo dira Ibarrrako plazatik, 08:00etan. Bizikletak emateko kamioi txiki bat lotu dute eta alde horretatik arazorik ez dela egongo azaldu dute ibartarrek. «Haurrentzat ere beste ibilbidetxo bat prestatu dugu, eta agian sorpresatxo bat ere izango dute». Informazio gehiago nahi dutenek 652 71 80 00 zenbakira deitzea nahikoa izango dute, «eta argi dutenak igandean azaldu beharko dira Ibarrrako plazara».

## «Gero eta jende gehiago»

2007ko udazken hartan Ibarrrako bi eragile elkarlanean hasi ziren. Alde batetik, Haitzetan Raju

mendi taldea aurkitzen zen. Ama lurrari lotuta, hainbat ekitaldi antolatuak zituzten jada. Bestaldekik, Bai Euskal Herriari herri ekimena zegoen, euskaldunak ardatz hartuta hamaika ekimen egiteko prest.

Bi eragile hauek elkarrekin lanean hasi zirenean, ondorioa honakoa izan zen: «Euskal Herrian barrena mendi irteerak egingo ditugu».

Esan eta egin. Urtean zehar zappi irteera antolatu zituzten, lurralde bakoitzeko bat. Oinarri sendo honekin, urtero Euskal Herriko hainbat txoko ezagutzeko aukera izan dute. Eta jada, «ohartzera», aurtengoa proiektuaren laugarren urtea izango da.

Aurrera begiratu aurretik ordea, urratsak ongi errotu diren ikusteko edo, atzekoa aztertu nahi izan dute labur-labur bi taldetako kideek: «Proiektuarekin hasi ginenean, Euskal Herria ezagutzeaz gain, aisiarako beste eredu bat bultzatu nahi izangenuen. Mendi irteerara joan den jendeak errepikatu egin du eta hori seinale ona izan da. Beldunaldi desberdinen topagune bilakatu dira txangoak eta giro polita sortu da».



laz jende ugari elkartu zen Zugarramurdiko irteeran. HITZA


Guraso gazteen ekarpena ere gogotik eskertu nahi izan dute: «Laz gauza bereziak bizitu genituen: Zugarramurdiko irteerara adibidez, guraso gazte eta haur txiki ugari joan ziren. Aurten ere bide horri eutsi nahi diogu. Eurentzat ibilaldi alternatiboak pentsatuko ditugu eta gero, gurasoak, nahi duten edo komeni zaien bezala antolatuko dira».

Sendotuz doan ekimena dela uste dute ibartarrek, «gero eta jende gehiago» elkartzen baita. «Azken urtean, eguraldia lagun izan dugunean, hori argi gelditu da».

## 'Ibarrratik, Euskal Herria ezagutz'

Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Rajurekin batera, laugarren ikasturte honetan, hainbat eragile eta herritar hasi dira lanean «hasiera hasieratik». Irteerak ondorioz, denon artean antolatuko dituzte: «Uztaila inguruan bilera bat egin genuen, egutegi moduko bat osatzeko. Bertan bildu ginenok, zappi ibilaldi adostu genituen gutxi gorabehera. Ondoren lurralde bakoitzaren ardura banatu egin genuen. Ondorioz, batzuk Lapurdiko irteera antolatuko dute, besteek Nafarroakoa eta abar.».

Behin mugak hausten jarrita, Ibarrratik kanpora irtetea ere erabaki dute, Lizarrara eta Algortara mendi elkarrekin bat eginaz. «Algortako Ungari Mendi Taldearekin iaz Xiberoara joan ginen. Aurten ere elkarrekin Bizkaiko irteera egingo dugu. Bestalde, Lizarrarekin senidetu ondoren, bertako Mendi Taldearekin elkartu da Haitzetan Raju. Harreman horren lehen fruitua, Gipuzkoako irteer



Aurten kartel berriekin iragarriko dituzte mendi irteerak. HITZA

ran ikusiko da. Mendi bueltarekin batera, ziklari jatea egiteko asmoa baitaukat 2011ko apirilaren 10ean».

Ibartarrek hartutako erabaki honek ordea, hau da, mugak zabal-

tzearenak, zorabio pixka bat sortu duela dirudi lelo berriari begiratzeko baldin bazaio. Izan ere, 2010/11 ikasturteko irteerak *Ibarrratik, Euskal Herria ezagutz* ize-na eramango dute.

## HAITZETAN RAJU MENDI TALDEA FACEBOOK-EN ETA TWITTER-EN

Gizarte sareetarako urratsa eman duela iragarri du Ibarrrako Mendi Taldeak. Hau da, Haitzetan Raju Facebook-ean eta Twitter-ean aurkitzen da.

Bertan, azken hiru urte hauetan egin diren mendi irteerak aurki daitezke, eta nola ez, ibilaldi hauetan aterako argazki gehienak euren lekua dute.

Norbanakoei eta talde desberdinei deialdia luzatu diete Mendi Taldek: «egin zaitzete Haitzetan Rajuren lagun edo jarraitzaile Facebook-ean edo Twitter-en».

**@ Twitter eta Facebook.** TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkaria Facebook-ean eta Twitter-ean aurkitzen da. Egin zaitzete gure lagun edo jarraitzaile. Gizarte sare hauetan sartu eta aurkitu TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA. Modu horretara, azken orduko edo zure herriko albisteak zuzenean jasoko dituzte. Horrez gain, sare informaturik egoteko ohiko bideak eskaintzen dizkizu eskualdeko euskal kazetak. Parte hartzeko aukera ere bertan aurkitu duzu:

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

**Anoetako Kiroldegiaren harira.** Anoetako Abraham Olano kiroldegia BPXport enpresak kudeatzen du. Honen harira Anoetako Udalak emandako informazioarekin osatutako albisteak kaleratu genuen hilaren 13an eta informazio horri erantzuna emanaz enpresak kaleratutako gutuna ere argitaratu genuen hilaren 16an. Gutuna, hala ere, ez da gure webgunean ([www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)) ageri eta horregatik albiste berriz ere sartu dugu Azken Ordukoen sailean denon eskura egoteko.



943 67 16 27 • Igaralde 4, baxua  
20400 Tolosa

**DENAK**  
taberna  
2x1 eskaintza

## Astelehenetik ostegunera ogitartekoetan 2 pertonentzako 2x1 eko eskaintza

- Eskaintzaz gozatu nahi duenak, aurretik tabernara deitu dezala joango dela esateko
- Kupoiaz gain, harpidedun txartela ere eraman beharko da
- Eskaintzaren iraungitze data, 2010eko abenduaren 31

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza**

Izen - Abizenak:.....  
Harpidedun kodea:.....  
Erreserba eguna:.....



XIII. Azoka Berezian guztira 46 postu izan ziren. Janari eta artisauro postuak izan ziren eta jende ugari ibili zen. SARA GOMEZ

## Hotza egin arren «giro bikaina» izan da Zizurkilgo XIII. Azoka Berezian

**Kultura** » Jende ugari elkartu zen Zizurkil Goian eta, goiz eta arratsalde ibili ziren. Bertan erretako txahala ere jan zuten.

### ERREDAKZIOA

Negua ate joka dugu eta dagoeneko eguraldi txarra eta hotzak hasi dira. Hala ere, Zizurkilgo XIII. Azoka Berezian ongi portatu zen eguraldia. Goizeko euri zaparradak alertuta, bertaratuek aterkia soberan izan zuten bertako postuak ikusiz ibiltzeko.

Guztira, janari eta artisauro artean, 46 postu izan ziren. Eta Udalak eta herriko eskolek jarritakoak ere izan ziren. Eguraldia dela eta, postu batzuk kalean jarri bazituzten ere, artisauroenak frontoi barruan jarri zituzten. Autoz, oinez edota Udalak antolatutako autobusean, ehunka pertsona hurbildu ziren baserriarren zein artisauroen produktuak ikusi eta erostera. Egurdirako jende ugari gerturatu zen XIII. Azoka Berezian. Eta kan-



Udalak eta herriko ikastetxeek ere jarri zituzten beraien postuak. SARA GOMEZ

tu jirako taldea ere, Azokan barrena euskal abestiak abesten aritu zen, bertako giroa alaituz. Arratsaldez ere izan zen bertan ibiltzeko aukera.

### Olatza baserriko postua herriko hoberena

Eskolastika Zabalak jaso zuen herriko baserriarren posturik onenaren saria. Olatza baserriaren bizi

da eta bertan ekoizten dituen produktuak jarri zituen Azokan salgai eta ikusgai. Olentzo jatetxeak eskainitako saria jaso zuen, lau lagunentzako otordua.

Egurdian, pertsona ugari gerturatu zen txahal erre dastatzera. Bertan erre zuten herrian hazitako txahala eta pintxoak jateko aukera izan bazen ere, bazkaltzeko ere izan zen eta Zimiterioan elkartuta

bazkaldu zuten. Haurrek ere, goiz eta arratsalde jolasetan ibiltzeko aukera izan zuten.

Arratsaldean, lehen aldiz, txakurrek eskainitako ikuskizunaz gozatu zuten bertaratutakoek. Udaletxe ondoko zelaian, lerari tiraka ibili ziren elurretako txakurrak. Kasu honetan ere, haurrek ez zuten gurdi gainean ibiltzeko aukera galdu.

## Igande goizean Stock Azoka izango da 10:00etatik aurrera

**Villabona** » Oria Merkatarien Elkarrekin antolatu du eta herriko hamalau denda aterako dira kalera.

### ERREDAKZIOA

Villabonako Oria Merkatarien Elkarrekin, igande goizerako Stock azoka antolatu du. 10:00etan emango zaio hasiera eta 14:00ak bitarte izango da. Eguraldi ona bada Errebote plazan izango da eta euria egingo balu, frontoi berria.

Herriko hamalau dendagoiz batetik kalera aterako dira, beraz, azokan denetik erosi ahal izango da. Gainera, Stock Azokan erosketak egiten dituztenen artean, bi lote zozketatuko dituzte. Zozketa 14:00ak aldera egingo dute. Azokan giroa alaitzeko trikitalariak izango dira eta haurrentzako jolasak ere egongo dira.

## Kultur eta Kirol astea antolatzeko bilera gaur 19:00etan

**Anoeta** » Hilaren 10ean egin zuten Euskal Jaiaren balorazioa egiteko ere baliatuko dute gaurko bilera.

### ERREDAKZIOA

Hilaren 10ean, hirugarren urtez jarraian, Euskal Jaia ospatu zuten Anoetan. Orain, egun guztiko festaren balorazioa egiteko unea iritsi da. Horretarako, gaur 19:00etan udaletxean elkartuko dira.

Euskal Jaiaren balorazioa egiteaz gain, bertan elkartutakoekin, Kultur eta Kirol Astea prestatzeko baliatuko dute. Hori antolatu ahal izateko ere, dei egiten diete herriko taldeei eta herritar guztiei bertan parte hartzera.



sarrerak

HITZAK sarrera pare bat du

**LAGUN ARO GBC ASEFA ESTUDIANTES**

saskibalo partidarako

Urriak 24 • Igandea • 18:30ean Donostiako Ilunben

sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira



E **Emaizak****PILOTA****4 LAU T'ERDIKO TXAPELKETAREN****KANPORAKETAK****Bengoetxea VI** 22

Mikel Beroiz 3

**Olaizola I** 8

Iñigo Diaz 22

**FUTBOLA****ERREGIONAL OHOREZKO MAILA****SEIGARREN JARDUNALDIA**

Idiazabal 2

**Tolosa CF** 0**SAILKAPENA**

1. Hernani (15 puntu); 2. Real Union (13 puntu); 3. Anaitasuna (12 puntu);

**12. Tolosa (8 puntu).****ERREGIONAL PREFERENTE A****SEIGARREN JARDUNALDIA**

Urnietia 0

**Tolosa CF 'B'** 6

Urola 3

**Intxurre** 0**SAILKAPENA**1. Zestoa (16 puntu); 2. Mutriku (11 puntu); 3. Antzuola (11 puntu);  
**4. Tolosa CF 'B' (10 puntu);**  
**15. Intxurre KKE (3 puntu).****ARETO FUTBOLA****NAZIONAL A MAILA****BOSGARREN JARDUNALDIA****Lauburu KE** 4

Allerru 3

**SAILKAPENA****1. Lauburu (13 puntu);** 2. Zierbana (12 puntu).**NAZIONAL B MAILA****LAUGARREN JARDUNALDIA****Transportes Lakunza** 5

Jarrileros F.S. 5

**Laskorain Ikastola** 7

Soloarte F.S. 1

**SASKIBALOIA****1. MAILA NAZIONALA****HIRUGARREN JARDUNALDIA****Bidebide Ibiz** 73

San Ignacio UPNA 62

# Bengoetxea VI.ak aurrera egin du eta Olaizola I.a Txapelketatik kanpo gelditu da

**Leitza** » Lau t'erdiko Txapelketan Bengoetxea VI 22-3 irabazi zion Beroizi eta Olaizolak 8-22 galdu zuten Iñigo Diazen aurka.

**ERREDAKZIOA**

Ez dute hasiera berdina izan Bengoetxea VI.ak eta Olaizola I.a. Lau t'erdiko Txapelketan. Bengoetxeak erraz irabazi zion Beroizi Labriten, 22-3, eta finalerdietan izateko hautagai sendoa dela erakutsi du. Olaizolak, berriz, 8-22 galdu zuten Iñigo Diazen aurka, Txapelketako lehen ezustekoa emanez.

Oinatz Bengoetxeak ez zion aukerarik eman Mikel Beroizi. 2003tik ez zen horrelako markagailurik ikusten Lau t'erdikoan. Bengoetxea indartsu hasi du Txapelketan, iaz bezala. Orduan 22-5 irabazi zuten lehen kanporaketan.

Bengoetxeak nahi zuten guztia egin zuten. Beroizek hasieran ba-

**Bengoetxea VI.a.** HITZA

karrik egin zuten zerbait. Bi saketan erazierantzun txarra eman ondoren, bere lehen tantoa bipareta eginez lortu zuten. Hortik aurrera Bengoetxea nagusitu zen guztiz. Leitzarrak ez zuten barkatu eta akats bakarra egin zuten. Une oro aurkariari min ematera joan zen, zabalean zein txokoa tantoak eginez. Beroizek ezin izan zuten partidari sartu.

Lehen kanporaketa irabazi ostean, Bengoetxeak datorren igan-

**Olaizola I.a.** HITZA

dera arte itxoin beharko du hurrengo aurkaria jakiteko. Eskualdeko bat izango da, Barriola leitzarrak eta Saralegi amezketarrak jokatuko den partidatik aterako baita. Eibarren jokatuko dute igandean, hilak 24, 17:00etan hasiko den jaialdiaren baitan.

**Errestoan galdutakoa**

Leitzan bizi den Olaizola I.a goizuetarrak lehenengo ezusteko ezkorra eman zuten Txapelketan.

Aurreko urtean ia finalerdietan sartu bazen, aurten lehen partidari kanporatu izan da Olaizola. Iñigo Diaz nagusitu zen frontoian. Hasieran bi akats egin bazituen ere, partidari zehar erakustaldia eman zuten erremateetan. Horretarako Olaizolaren laguntza jaso zuten, errestoan ez baitzen fin aritu.

Diazek intentzio berezia jarri zuten sakeetan. Indarra eta norabidea eman zion, beti paretara arri-matuz. Olaizola deseroso aritu zen errestoan eta ez zuten erakutsi partidari buelta emateko gaitasunik.

**Olaetxea eta Olazabal, asteburu honetan**

Olaetxea lizartzarrak lehen kanporaketa larunbatean, hilak 23, izango du Patxi Ruizen aurka. Labriten izango da partidari eta 17:30ean hasiko da.

Olazabal areoarrak Berasaluzen VIII.a izango du aurkari larunbatean ere. Gernikan izango da partidari, 17:00etan hasita.

## Lauburu lider jarri da Allerruri irabazi ostean

**Ibarra** » 4-3 gailendu ziren Belabietan gipuzkoarren arteko derbian eta partidari galdu gabe jarraitzen dute Ibarraoek.

**ERREDAKZIOA**

Lauburu taldeak derbi polita jokatuz Lezoko Allerru taldearen kontra Belabietan eta partida irabaztea lortu zuten, 4-3. Bi taldeek erakustaldia eman zuten, kiroldegira joandako jendetzaren aurrean.

Bi taldeek izan zituzten aukerak partidaren hasieran, baina bi ate-

zainek geldiketa onak egin zituzten. Lauburu izan zen aukera garbienak izan zituen. Lasaitu ziren bi taldeak eta hortik gutxira Loitzun Sanzek eskudratik sartu zuten gola hamabigarren minutuan. 1-0koa zen. Gutxi iraun zuten tartek markagailuan, Allerruk batak 13. minutuan lortu baitzuen kontraeraso batean.

Ibarra ez zuten galdu kontzentrazioa partidari eta edozein momentotan bi taldeek gola egin zezaketela ikusten zen. Azkenean Ibarraoek alde erori zen gola, taldeak ondo landutako jokaldi baten ondorioz Jon Garmendiak 2-1koa jarri zuten markagailuan 18.

minutuan. Hurrengo minutuan, Victor Silvak korer baten ondoren 3-leko lortu zuten. Horrela iritsi ziren atsedenaldira. Ibarraoek bere jokoak erakusten ari zirenean markagailua alde zuten.

**13 punturekin, lidergoan**

Bigarren zatia hasi eta laster laugarren gola lortu zuten Lauburu. Lander Camiok kantxa erdialdetik sartu zuten. Bazirudien arratsaldean ondo joango zela, baina oraindik minutu asko falta ziren.

27. minutuan Allerrukoek bigarren gola sartu zuten kontraeraso batean. Ibarraoek akats bakarra 35. minutuan izan zen. Defentsan

baloi bat galdu zuten eta Lezokoek hirugarren gola sartu zuten.

Allerru etxekoekin kirioak aprobetxatzen saiatu zen, baina Lauburu eutsi egin zion eta garaipena eraman zuten. Oso gustura gelditu ziren Ibarraoek, bost partidari zuten baitute bat bera galdu eta 13 punturekin sailkapenaren lehen postuan jarri dira.

**Tolargik, galdu**

Tolargik, Laubururen bigarren taldeak, galdu egin zuten Lasarten gol batengatik. Bere aldetik, jubentzek 8-2 irabazi zioten Urretxuko Goierri taldeari, joko erakustaldia eginez.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA  
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

## Olaberriak bost urrezko domina eskuratu ditu Mallorcan

**Ikaztegieta** » Txirindularia Europako Txapelketara begira jarri da eta bere helburua puntuak lortzea da Joko Olinpikoetarako.

### ERREDAKZIOA

Leire Olaberria txirindularia izan da Mallorcan jokatu den Pistako Espainiako Txapelketan jaun eta jabe. Guztira bost urrezko domina eta zilarrezko bi eskuratu ditu ikaztegieta, herenegungo puntuaketa azken proba irabazi eta gero.

Puntuaketa nesken proba mantso hasi zen eta ondorioz, Barbara Antonek hartu zion aurrea lehen probako lehen zatian. Olaberriak, orduan, itzuli batzuk aurreratzen lortu zuen eta azkenean 75 puntu eskuratu irabaztea lortu zuen.

### Herenegungo probak

Asteburu gogorra izan du ikaztegieta, izan ere proba asko izan ditu. «Gogorra izan da, proba asko izan direlako, baina orokorrean pozik noa. Buruan, oraintxe, bi aste barru Polonian izango diren Europako probak ditut eta Txapelketa hau eta gero prestatuta joango naizela pentsatzen dut», esan du Olaberriak.

Herenegungo lehen garaipena goizean eskuratu zuen Euskadiren zenean. Olaberriak, Ana Usabiaga eta Olatz Ferraneekin batera osatzen zuen taldea.

Olaberriak azaldu duenez, «gustura noa izan ditudan sentsazioe-



Leire Olaberria dominetako bat jasotzen podioan. RFEF

kin eta egin ditudan probekin ere, batzuekin besteekin baino gehiago. Nik uste dut ondo nabilela eta espero dut hobeto egotea. Europako Txapelketaren ondoren puntu olinpikoetan bakarrik pentsatu behar da eta nire burua lan egiten ari da munduko onenekin lehiazteko».

Europako Txapelketara «dudarik gabe dominen bila» joango dela adierazi du, «baina egin beharre-

koa puntuak gehitzea da eta gero eta gehiago lortu hobeagoa izango da bidea».

### Pagolak hiru domina

Bere aldetik Ainhoa Pagola tolosarrak hiru domina lortu ditu Euskadiko Selektzioarekin parte hartuz. Zilarrezko domina bat abiduran lortu zuen eta beste biak brontzezkoak izan ziren. Bat 500 metrotan eta bestea keirin proban.

## Laskorainek 7-1 irabazi du Soloarteren aurka

**Tolosa** » Ikastolakoek partida borrokatu jokatu zuten aurkari gogor baten aurka; lau partidatik hiru irabazi dituzte dagoeneko.

### ERREDAKZIOA

Garaipen ederra lortu zuen Laskorainek Basauriko Soloarteren aurka, 7-1 irabaziz. Azken emaitzak bestelakorik pentsarazi badezake ere, partida serio eta borrokatu jokatu behar izan zuten horitxoek hiru puntu eixean eusteko. Azken denboraldietan Nazional A mailan aritu den talde bizkaitarrak itxura ona eman zuen Usabalera gerturatu zen zalego jendetsuaren aurrean.

Maila bat goragoko taldea izaki, erritmo bizia ezarri zuen Soloarterek partidaren lehen zatian eta euren atea defendatzeko baloia eraman atetik korrika nahiko lan izan zuten Jabi Mujikaren mutilek. Dena den, aukera garbirik ez zuten sortu bizkaitarrek eta Ikastolakoek egindako lehen saiakeran aurretik ipini zituen Barriola kapitainak area barnean noraezen geratutako baloi bat arrantzatu ostean.

Gol honek talde horitxoaren urduritasunak baretzeko balio izan zuen eta jokoak aurreko gidoi berberarekin jarraitu bazuen ere Ikastolako konfiantzak gora egin zuen. Honela, Barack Telleriak errenta areagotu zuen kontraeraso bat buelta erdian dotore amaitu lortutako gol bati esker. Atsedendirako bi minutu faltan, itxura ederra hartu zuen partidak,

baina bizkaitarrek euren gola egi- tea lortu zuten Ikastolakoen kontraeraso batekin erantzunez.

Atsedenerako probestutako minutuek mesede egin zioten talde horitxoari. Bigarren zatia hasi bezain pronto bat-biko bikainak egin zuten Soloarteren presioa gainditu eta gol bana sartu baitzuten Gil TDI eta Mick Saldias Jagger rockero zaharrak. Norgehiagoka bideratuta zegoenean, nekeak gainontzeko jokalariei baino gutxiago eragiten dion Gilek bere bigarrena egin zuen aurkariaren atezain tronpatuz eta partida erabakita utziz.

13 minutu falta zirenerako atezain jokalaria ipini zuen Soloarterek baina ez zion etekinik atera. Ikastolakoak esfortzu fisiko handia eginez euren atletik urrun mantendu zituzten aurkariak eta behar izan zuten Endika irmo agertu zen atepaan. Minutu hauetan Endikak berak egindako ateko sake eder bat eta aurkariaren baloi galera bat baliatuz hat tricka sinatzea lortu zuen Saldiasen.

Partida amaieran areto futbolero jakintsu batek zioen moduan, «7-1koa engainagarri suertatu daitekeen arren errealitate!», eta 12 puntutatik 9 poltsikoratuta gustura erretiratu ziren Jabi delegatua, Jabi entrenatzailea, Endika, Beñat, Barriola, Gil, Txiki, Ekhi, Saldias, Elola, Josu eta Aratz jokalaririk.

Asteburua erabat borobila izan ez bada ere, oso ona izan da klubarentzat. Aitorren bigarren taldeak 3-3 berdindu zuen eta Sanchoen hirugarrenak 3-4 irabazi.

**MUNDUKO SUKALDARITZA** →  
EUSKAL HERRIAN

**EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 4. alea**

ALEMANIA • JAPONIA  
MAROKO • BREITAINIA  
INDIA • MEXIKO • VIETNAM  
ARGENTINA • LIBANO  
ITALIA • TXINA

**berriekin eskaintza berezia**

**EGIN ESKAERA**  
urriaren 29a baino lehen  
www.berria.info  
harpidetza@berria.info  
943-30 43 45

LAGUNTZAILAK: FAGOR, AUKERA EZZUL, BIZI EUSKARAZ, berria



## TOLOSAKO UDALA

### IRAGARKIA

“14. BERAZUBI KONDEANENKO ALDAPA (BIKOITIA)” AZPIESPARRUKO HIRI ORDENAZIOKO PLAN BEREZIAREN BEHIN BETIKO ONARPENA-

Udalbatzak, 2010eko irailaren 28an egin zuen osoko bilkuran, bestek beste, ondorengo zati xedatzailea duen erabakia hartu zuen:

ERABAKI DU

1.-Behin betiko onespina ematea “14.1 Berazubi-Kondeaneko Aldapa (bikoitia)” azpi esparruko Hiri Ordenazioko Plan Bereziari eta bere Testu Bateratuari (Laskorain ikastolak sustatu eta Juan Jose Gurrutxaga, Maria Gurrutxaga eta Ander Auzmendi arkitektoek idatzia 2010eko irailaren 23ko datarekin) hurrengo baldintza honekin:

Tolosako Urbanizazio, Eraikuntza, eta Ingurumena, Paisaia eta Natura Babesteko Udal Ordenantzek behin betiko onespina jaso eta gero, Plan Berezi honetako Ordenantza Erregulatzaileek bat etorri behar dute aipatu ordenantzetan ezarritako zehaztapenekin.

2.-Behin betiko erabakia jakinaraztea Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturako Departamentuari.

3.-Plana balditza Gipuzkoako Foru Diputaziora, Hirigintza Planeamenduen Administrazio Erregistroan jasotzeko.

4.-Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onespina erabaki osoa eta Planaren hirigintza arauak, Plana Hirigintza Planeamenduko Administrazio Erregistroan 2010eko urriaren 14an zartua.

5.-Behin betiko erabakia argitara ematea eguneroko prentsan.”

### ERREKURTSOAK:

2008ko azaroaren 24ko Ebazpena behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Nahiz izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezake interesatuak Euskadiko Justiziazko Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabakia hau argitaratu edo, kasu bada, jakinarazi eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsua aurkezteko Udalbatzari, argitaratu edo, kasu bada, jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkezteko harik eta berraztertzearekin berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte.

Tolosa, 2010eko urriaren 14an

ALKATEA



13°  
9°

GOIZA  
ARRATS.  
BEROENA  
HOTZENA

EURIA  
EGUZKIA  
13°  
7°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendari:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Ibarra.** III. Galtzakomik komiki lehiaketa euskaraz. Gazte eta helduentzat, gai librea. Lanak Galtzaundin entregatu behar dira. Antolatzailea: Galtzaundi Euskara Taldea eta Ibarako Udala.
- **Tolosa.** Zezen plaza auzoko bizi-lagunek urtero bezala afaria egingo dute, azaroaren 5ean. Izen-ematea, ohiko lekuetan.
- **Tolosa.** Hilaren 23an bertso-afaria lurre elkartean Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Amets Arza-llosekin. Izen-ematea, 943 67 15 32 telefono zenbakian.

### Erakusketa

- **Tolosa.** Ignacio Elizaranen erakusketa Aranburu jauregian.
- **Tolosa.** *Inestable* erakusketa GKO Galeriararen eskutik, Aranburu jauregian.
- **Tolosa.** Indonesiako Txotxongi-loak erakusketa Topic-en.
- **Tolosa.** *Ertza* erakusketa GKO Galerian.
- **Tolosa.** Lore lehorrekin egindako lanak ikusgai Lanbroa tabernan. Itziar artista irundarrak eginak.

### Hitzaldia

- **Tolosa.** *Zampano setas* hitzaldia emango dute David de Jorge eta Roberto Ruiz sukaldariek, 20:00etan Zerkausian, Kasino elkarteak 125. urtemugan antolatutako Mikologia Jardunaldien barruan. Perretxikoak prestatuko dituzte eta bertaratuak dastatzeko aukera izango dute.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



## San Estebango Kultur Astea «arrakastatsua»

**TOLOSA** ● Asteburu betea eta festa girokoa igaro ostean, datorren urtera arte agurtu dute San Estebango auzotarrek Kultur Astea. 23. urtez ospatu dute aurten, eta urtez urte indarra galtzen joan ordez, bere lekua hartu duela esan daiteke, izan ere, «espero baino jende gehiago» izan dute aurten, eta ondorioz, antolatzaileak «oso pozik» azaldu dira. Parte-hartze

handia izan duten ekitaldien artean daude, Leitzararen txiririnduz eginiko ibilaldia, herri krosa, auzoari buruzko hitzaldia, babarrun jatea, kontzertuak (irudian, larunbat gauko La banda del jefe Bigun taldearen zuzenekoaren une bat), haurrei zuzenduriko jolasak eta Patata Tortila Lehiaketa, esaterako. HITZA

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>